

2019/09/24

A114. PSIKOLOGIA.

BIGARREN ARIKETA

Denbora, gehienez: 120 minutu.

Zuzeneko gehieneko puntuazioa: 10 puntu


Ez ireki galdera-orriak esan arte, eta irakur itzazu arretaz orri honetako jarraibideak.

- **Mugikorrak itzalita** eduki behar dira, eta mahaitik kanpo, baita erlojuak, jarduera-eskumuturrekoak eta antzekoak ere. Ur botilak, estutxeak eta antzekoak eskura eduki daitezke, baina ez mahaiaren gainean.
- Aretoan erlojurik ez badago, ahoz jakinaraziko da zenbat denbora falta den proba bukatzeko: 60, 30, 15, 10 eta 5 minutu geratzen direnean, eta azken minutuan.
- Mahaiaren gainean hauek besterik ezin izango dira eduki: galdera-orriak, identifikazio-orria, NANA eta boligrafoa (urdina edo beltza). Ezin da erabili kolorezko errotuladorerik; bai, ordea, TIPEX® edo antzekorik.
- Epaimahaiak **irakurtzeko moduko idazkera** erabili behar da ariketan.
- GAKOA duen **identifikazio-orria** eman badizute, jar itzazu datu hauek: NAN zenbakia, izena, abizenak eta probaren kodea/izena.
- **Idatz ezazu GAKOA** erabiltzen dituzun **erantzun-orrietan**. EZ ezazu idatzi izenik edo NAN zenbakirik orrian, ezta sinatu ere, EZ ZUZENTZEKO arrazoia baita. Orriaren bi aldeak erabili. Orriei jarri zenbakiak, ez orrialdeei.
- Identifikazio-orria probaren lehen minutuak igaro ondoren jasoko da.
- **Bertaratze-ziurtagiria** nahi baduzu, eska ezazu presentzia-kontrola egiten den unean.
- Erantzun labur eta zehatzak eman behar dira. Aldez aurretik zehaztuta daude zuzenketa-irizpideak. Galdera bakoitzaren gehieneko balorazioa enuntziatuan bertan adierazten da.
- Denbora agortu aurretik bukatzen baduzu, altxa eskua erantzun-orriak har diezazkizuten. Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.
- Ez ahaztu erantzun-orri guztietan hauek adieraztea:
 - **LEP kodea (A114)**
 - **Identifikazio-gakoa**
 - **Zein kasurik erantzuten zaion.** Adi erantzuteko ezarri den gehieneko tokiari. Ez dira zuzenduko adierazitako gehieneko tokia gainditzen duten erantzunak.
 - **Orri-zenbakia** / erabilitako orriak, **guztira.**

Eskerrik asko zure laguntzagatik

1. KASU PRAKTIKOA. Gehieneko puntuazioa: 12 puntu. Erantzuteko tokia, gehienez: 3 orrialde.

Ikastetxeak Udalaren Gizarte Zerbitzuan jakinarazitako kasua. Hau da Udalaren Gizarte Zerbitzuak egindako ikerketan lortutako informazioa:



Alicia eta Antonio ez dira elkarrekin bizi izan. Aliciak du Aritzzen zaintza. Antoniok bete egiten du ezarritako bisita-erregimena: asteburu alternoak eta oporraldien erdia.

Ikastetxeko aholkulariak Miren Perez de Otazurekin kezkatuta dagoela jakinarazi du, izan ere azken bi hilabeteetan urduri ikusten dute, eta erraz egiten du negar, eta hori ez dator bat bere ohiko izaera alaiarekin. Horretaz gain, Miren tripako minez maiz kexatzen dela adierazi du.

Eskolan ondo dabilen umea da Miren, nahiz eta azken hilabeteetan notek beherantz egin duten. Arrazoi hau dela eta bere ama haserre dagoela esaten du. Ikastetxeak adierazi duenez ama oso zorrotza da, eta umeak beti bikain ateratzea nahi du. Mirenen ustez ere, orain “oso ondo” nota ez da nota ona. Bere nebak, berriz, zailtasunak ditu haur hezkuntzako helburuak betetzeko.

Mirenek bere tutoreari jakinarazi dio gorroto duela dantza-eskoletara joatea (4 urte zituenetik joaten da), baina ezin diola bere amari esan, haserretu eta zigortu egiten duelako, “ni maitzeari uzten diolako”. Miren dantzari profesionala izatea nahi du amak. Hori dela eta, asko zaintzen du Mirenen elikadura, eta jaten duen guztia kontrolatzen du. Ez dio lagunen urtebetetze-jaietara joaten uzten, ez duelako litxarreriarik jan dezan nahi. Zenbaitetan harrapatu egin du litxarreriak ezkutuan jaten eta zigortu egin du: telebista ikusi gabe eta hainbat astez gaueko musurik eman gabe utzi du. Miren pozik dago amak txakurkumea erosi diolako eta biziki maite du txakurtxo. Txakurra izaten jarraitzeko eskola- eta dantza- betebeharrak bete egin beharko dituela esan dio amak.

Alicia haserretu egin da ikastetxearen informazio honekin, eta tontakeriak direla esan du. Pediatrak dioenez, Mirenek ez du osasun arazorik eta “ikastetxean Mirenek nota onak ateratzeaz bakarrik kezkatu behar dute”. “Duen esperientzia tarteko badaki zer garrantzitsua den neska batentzat ondo prestatuta egotea” eta horregatik beti saiatu da heziketarik onena ematen, eta oso zorrotza da neskatilaren eskola-betebeharrekin. Beste kontu batzuetan amak malguagoa dirudi. Aisialdian lagunekin ateratzen uzten dio eta ama-alabak zenbait zaletasun partekatzen dituzte maiz (eskulanak, mahai-jokoak...)

Aritzen aitak semearekiko duen kezka azaldu du, izan ere, osasun arazorik izan ez arren, ez du umea ondo ikusten. Asteburuetan denbora ematen du berarekin, baina ez du ezerekin atsegin hartzen ikusten. Umeari hitz egiten dionean umeak ez diola entzuten ematen du, eta edozein gauza erantzuten du. Aliciarengandik arreta gehiago behar duela uste du. Alicia Miren alabarengan zentratuta ikusten du eta semearekin denbora gutxi pasatzen du. Badaki Aritzek istripu txikitxoak pairatu dituela etxean. Oraingoz ez du kalte handirik jasan, baina Aliciak gehiago zaintzen ez badu zerbait gerta daitekeen beldur da aita.

Ikastetxeak jakinarazi dutenez, Aritzek ez ditu jarduerak modu ordenatuan egiten, edo amaitu gabe uzten ditu, eta maiz errepikatu behar zaio zer egin behar duen. Kosta egiten zaio luzeak iruditzen zaizkion edo ordura artekoen antzik ez duten ariketak egiten hastea.

Amak dioenez, etxean denbora asko behar izaten du janzteko eta bere burua garbitzeko, baina nekatu gabe aritu daiteke kontsolarekin jolasean edo telebista ikusten. Arrebarekin hainbat mahai-jokotan jolasten du, baina ez ditu arauak betetzen eta haserretu egiten da. Egoera horietan korrika hasten da, begiratu gabe, eta bidean topatzen duen edozein gauza botatzen du. Aliciak dio ezin duela denbora guztia Aritz zaintzen eman, Antonio gaizki hezten ari dela umea eta Aritzek bere kabuz azkartu behar duela.

Aliciak, uzkur bada ere, onartu egiten du Gizarte-zerbitzuen esku hartzea, dena ondo egiten ari dela erakusteko, izan ere nekatuta dago ikastetxeak bera epaitzeaz:

GALDERAK:

Udalaren gizarte zerbitzu bateko talde psikosozialeko psikologo batek burutu dezakeen esku-hartze prozesuko bi fase zehatzetan parte hartzea eskatzen da ariketa honetan: ebaluazioan eta esku-hartzearen plangintzan.

- 1.1. Emandako informazioa kontuan hartuz, **adierazi eta justifikatu itzazu** kasu honetan baloratu ditzakezun 3 babesgabetasun-tipologia ((1,5 puntu)
- 1.2. **Adieraz itzazu** Mirenek duen babesgabetasun-maila bereizteko beharrezkoak diren hiru aldagai (0,3 puntu). Dagoen informazioa kontuan hartuta, **identifika ezazu** horietako zein den kasu honetan baloratu beharrekoa (0,6 puntu). **Adierazi** horretarako egokienak diren hiru estrategia psikologikoak (0,6 puntu).
- 1.3. Emandako informazioan oinarrituta, **identifikatu eta justifikatu** esku-hartze plana oinarritzeko 5 alderdi garrantzitsu (3 puntu)
- 1.4. **Adieraz** itzazu semearen eta alabaren ongizatea hobetzeko egin daitekeen esku-hartze planaren 4 helburu garrantzitsuenak, eta **deskribatu** helburu bakoitzerako egin daitekeen ekintza bat (edukia eta metodologia) (6 puntu)

2. KASU PRAKTIKOA. Gehieneko puntuazioa: 7 puntu. Erantzuteko tokia, gehienez: orrialde bat

Adineko asko dituen auzo bateko auzo-elkarteko ordezkari batzuek udal zerbitzura jo dute. Jubilatu berriak dira, batzuk irakasle izandakoak, eta kezkatuta azaldu dira bakarrik bizi diren adineko askoren egoeragatik (batzuk alargundu zirenetik bizi dira bakarrik). Ordezkari horiek adierazi dutenez, bakarrik dauden pertsona horietako asko oso gutxitan ateratzen dira kalera, eta ez dute ez sare sozialik ez laguntzarik.

Auzoan ez dago arazo horri heltzen dion proiekturik, eta horregatik kezkatuta daudela adierazi dute elkartekoek. Bere burua eskaini dute proposatzen zaien edozein zereginetan edo proiektutan aritzeko.

GALDERAK:

- 2.1.-"Gasteizko udalaren psikologoaren esku-hartze ingurua" argitalpenean adierazitakoari jarraiki, **aukeratu eta argudiatu**, kasu zehatz honetan aplikatzeko, esku-hartze arlo hauetako bat: lankidetzak, ekintza koordinatua edo sustapena (puntu 1).
- 2.2.- Psikologoak implementatzeko talde-ekintza bat **diseinatu**, aukeratutako esku-hartze arloarekin bat, eta edukia eta metodologia deskribatu (adierazi aukeratutako talde-teknika mota, "Gasteizko udalaren gizarte-zerbitzuetako psikologoaren esku-hartze ingurua" argitalpenean adierazitakoekin bat", (6 puntu).

3. KASU PRAKTIKOA. Gehieneko puntuazioa: 5 puntu. Erantzuteko tokia, gehienez: orrialde bat.

Zerbitzuko administrariak adierazi dizu nabarmen nahigabetuta dagoen emakume bat dagoela sarreran (Kontxi, orain arte artatu gabea), eta premiazko laguntza eskatzen duela “ezin dudalako gehiago”.

Berarekin hitz egitea oso zaila gertatu bada ere - kontakizuna behin eta berriz eteten du negar egiten duelako-, datu hauek eman dizkizu administrariak: 48 urteko emakumea da, ezkondua, 2 seme ditu (14 eta 16 urtekoak), 82 urteko ama alarguna zaintzen du, eta amari Alzheimerra diagnostikatu zioten duela 4 urte. Duela urte eta erdi, amaren narriadura gero eta handiagoa zela ikusirik, ezin zela bakarrik bizi pentsatu zuten, eta ama Kontxiren etxera joan zen bizitzera.

Kontxik larritasunez eta inpotentziaz azaldu dio zein zail egiten zaion ama zaintzea:

“Ez dut ama ezagutzen. Emakume lasaia eta positiboa izan da beti eta orain oldarkor jartzen da batzuetan, oihu egiten digu eta min egin nahi diogula pentsatzen du”. “Batzuetan ez gaitu ezagutu ere egiten”. “Zenbaitetan amorratuta sentitzen naiz, berarekin haserretu egiten naiz duen jokaera dela eta, eta pazientzia ere galtzen dut”.

“Umore txarrez egoten naiz. Nire semeek adin zaila dute eta ez diet nahiko nukeen denbora eskaintzen; ez dut pazientziarik, oihu egiten diet.”

“Oso bakarrik sentitzen naiz. Ez dut bizitzarik, nire bizitza gelditu egin dela ematen du. Gustuko dut nire lana, baina lan egiteari guztiz utzi beharko diodala uste dut ez bainaiz iristen; kosta egiten zait kontzentratzea. Oso gutxi ateratzen naiz, ez naiz lagunekin gelditzen, ez dut inorentzako astirik, nirezako ere ez, noski”.

Egoerak okerrera egin du eta Kontxik gainezka egin du atzoko gertakari bat dela eta: ama bere semeekin utzi zuen etxean erosketa batzuk egitera irten zen tartetxo batean, eta amak etxetik alde egin zuen. Hainbat ordu pasa ziren aurkitu zuten arte. Denbora guzti horretan, amak agian istripu larria izan zuela pentsatzen aritu zen Kontxi.

“Gertatutakoaren ondoren ez dut nire burua ama zaintzeko gai ikusten”. Une horretan berarekin etxean egon behar nuela esaten diot neure buruari behin eta berriz. Gertatu ahal zaionarekin kezkatuta nago etengabe. Edozein unetan deskuidatu egingo naizela eta zerbait gertatuko zaiola pentsatzen dut”. “Bi gau hauetan ez dut begirik bildu. Une honetan ez naiz pentsatzeko gai ere. Leher eginda nago. Ezin dut gehiago”

GALDERAK:

- 3.1. Zehaztu** Kontxirekin lehen elkarizketa izateko gehieneko denbora (puntu 1).
- 3.2. Ezarri** lehen laguntza psikologikoko esku-hartze baten baitan Kontxirekiko lehen elkarizketa horren garapenean erabiliko zenituzkeen lau printzipio (4 puntu).

4. KASU PRAKTIKOA. Gehieneko puntuazioa: 6 puntu. Erantzuteko tokia, gehienez: orrialde bat.

Indarkeria matxistaren biktima den emakume bat elkarrizketatzen ari zara, esku-hartze jarraitu baten testuinguruan. Aitortu egiten du iraganean indarkeria-egintzak izan zirela (garai hartan ukatu egiten zituen), eta erlazioarekin amaitzeak bere eta seme-alaben ongizate emozionala hobetuko lukeela. Hala ere, uste du ezin dela banatu ekonomikoki bikotearen menpe dagoelako; ziur da bere amak erabaki hori kritikatu egingo lukeela; bere aldetik leialtasun falta izango litzatekeela uste du, iraganeko une batean eskaini zion laguntza dela eta.

GALDERAK:

- 4.1. Identifikatu** emakumea zein motibazio-etapatan dagoen, aldaketaren eredu transteorikoaren arabera (*puntu 1*). Zure erantzuna kontuan hartuta:
- 4.2. Adierazi** elkarrizketa horretako helburu nagusia (*puntu 1*):
- 4.3. Deskribatu** helburu hori lortzea xede emakume horrekin erabiliko zenituzkeen estrategiak (*4 puntu gehienez*)